



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

Donostia, 2025eko otsailaren 18

Kristogan anaia eta arreba zaituztedan maiteok:

Bihotza Jaunaganako fedez eta uste onez betea dudala idazten dizuet, Aita Santuak berak egiten digun eskabideari jarraituz, laster osatua izan dadin otoitz egiteko. Une honetan, Elizbarruti bezala, Aita Santuarekiko gure gertutasuna agertu nahi dugu, gure otoitzarekin eta senide-maitasunarekin berari espiritualki lagunduz.

Jainkoaren Hitzak gogoratzen digun moduan: «atal batek min duenean, min dute gainerako atal guztiek harekin; eta atal bat ohoratua denean, poza dute gainerako guztiek harekin» (*1 Ko* 12, 26). Gaur, Erromako Gotzainak –guztiok fedean sendotzen gaituenak– gure otoitz sutsuaren beharra du. Egigun otoitz, Jaunak osasuna eta sendotasuna eman diezazkion bere ministerioan.

Hori dela eta, gure elizbarrutiko apaiz guztiei eskatzen diet, datorren igandean, otsailaren 23an, eukaristia ospakizun guztietan, Frantzisko Aita Santuaren osasunagatik eskari berezia egin dezaten. Era berean, biziera sagaratuari ere dei egiten diot otoitz etengabea izan dezan Orduetako Liturgiaren ospakizunaren esparruan, gaixoaldiak irauten duen bitartean.

Azken finean, fededun, familia, elkarte erlijioso eta parrokia guztiak, eta baita eliz mugimenduetako kideak ere, egun hauetan gure Aita Santuaren osasunaren alde Jaungoikoari otoitz egitera animatzen ditut. Gure elizbarrutiko zaindaria den Arantzazuko Ama Birjinak, amagan-maitasunez eutsi dezala, eta Eliza jakinduriaz eta zuzen gidatzen jarraitzeko beharrezko bakea eta indarra eman diezazkiola.

Zuen otoitza eta Pedroren ondorengoaganako testigantza eta komunioa eskertzen dizuet. Kristogan bat eginik, jarrai dezagula elkarrekin fedearen eta itxaropenaren bidean.

In Corde Matris,

+ Fernando
Donostiako Gotzaina